



Irudian, EIZIE elkartaren azkeneko Batzar Nagusian elkartu ziren itzultzaile guztiak.

Itzulpengintzaren korapiloak

Oraingoan, EIZIE-ko lehendakaria den Bakartxo Arrizabalagarekin elkartu gara profesional hauen lanaren gainean luze hitz egiteko

ELKARRIZKETA

PERU S. GAMARRA

Gaur egun ez da normala zure lana ongi egin duzula entzutea. Hori da, behintzat, gehienoi gertatzen zaiguna. Lana bukatu eta normalean gauza negatiboak aipatzen dizkigute. Ez, ordea, ongi egin ditugunak. Ez du logika handirik, baina hori da egunez egun ikusten duguna. Dirudienez, errazagoa omen da gauza txarrak esatea. «Hau ez duzu ongi egin, eta ez dadila berriz ere gertatu» bezalakoak askotan entzuten dira. Baina zenbat aldiz esan digute «oso ongi, enpresak asko zor dizu»? Erantzun erraza du galdera honek.

Hala ere, badira beste lanpostu batzuk ezberdinak direnak. Lan mota hauetan zailagoa da produzitu dutena ikustea, hori bai, lanean hutsak egingo balituzte, huts horiek berehala atzemango genituzke. Itzultzaile, interprete eta zuzentzaileen gai-

nean ari gara. Denak dira oso lanpostu gogorak, bakartiak eta, neurri handi batean, esker txarrekoak. Erraza da itzultzaile bat bere lantokian testu bat behin eta berriz erreparatzen irudikatzea. Bera eta liburua, inor ere ez gehiago. Biak bakarrik. Esaldi batekin hasi eta milaka zalantza airean. «Hau honela jarriko dut, beste hau horrela...». Lana bukatuta koan, dena birpasatu eta entregatu. Arazorik ez. Baina halako batean telefono dei bat. «Los pilares de la tierra» liburuko orrialde klabea gaizki itzuli duzu eta mezua ez da behar bezala iristen». Interpretarekin ere gauza bera. Mourinho hitz egiten hasi eta gizon horrek esandakoa itzuli behar. Eta, gainera, ongi eta segundo batean! Horrelakoa da pertsona hauen lana. Ongi egiten badute, problemarik ez (seguru asko, hauek ere ez dute zorionik jasoko). Huts eginez gero, ordea, komeriak.

Territorios Euskal Interpretetako, Zuzentzaile eta Itzultzaileen Elkarteko (EIZIE) lehendakari Bakartxo Arrizabalagarekin bildu da elkartearen gainean hitz egiteko eta gus-tura erantzun ditu gure galderak Hendaiaitik.

Zer da EIZIE? Nola definituko zenuke?
– EIZIE, euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkarte da. Gure helburu nagusia profesional hauek izan ditzaketan arazoan aurrean

laguntza bat eskaintzea da. Elkarte profesionala izanik, pertsona hauen lan baldintzak defendatzen ditugu. Baina ez gara hor bakarrik geratzen. Itzulpengintzari interes berezi bat dion elkarte bat garenez, hau sustatzea da gure erronketako bat.

– Zuen webgunean sar-tzerakoan, zerrenda luze bat agertzen da zuzentzaileen, interpreteen eta itzultzaileen izen eta datuekin. Bitartekari bezala funtzionatzen al du EIZIEk? Hori al da zuen eguneroko lana?

– Ez. EIZIE-n gauza anitz eta oso ezberdinak egiten ditugu. Ezin daiteke gure jardua era sinplean definitu. Kontuan hartu behar da hemen barruan badirela profesional mota asko eta bakoitzak lan egoera oso ezberdinak izan ditzakeela. Badira bazkide direnak, bazkide ez direnak, autonomoak, administrazioan lan egiten dutenak, interpreteak, zuzentzaileak... Beraz, galdera honi erantzun egoki bat emateko milaka eta milaka gauza esan beharko nituzke (barreak).

– Beraz, ez da bakarrik bitartekaritza lan bat. Haratago doa zuen jarduna...

– Bai, zalantzarik gabe. Profesionalen lanerako ongi etorriko zaien prestakuntza zabal bat eskaintzen dugu eta lanerako baliabide ezberdi-



Irudian, Bakartxo Arrizabalaga.

«Itzulpengintza sustatzea eta profesionalen laguntza ematea da gure helburua»

«Literatura unibertsaleko zenbait lan euskaratzen gabiltza duela hogeitertirik hona»

nak ematen ditugu, beste gauza batzuen artean. Formakuntzari eta ikastaroei garrantzi berezia ematen diogu elkartearen. Hori seguru. Esan dudana bezala, itzulpengintza sustatzea eta profesionalen laguntza ematea da gure helburua. Baina, bestalde, baditugu beste hainbat programa ere eskuartean. Literatura unibertsaleko zenbait lan euskaratzen gabiltza duela hogeitertirik hona eta argitalpen propioak ere egiten ditugu, bai paperean bai sarean. Beraz, esan genezake denetarik egiten dugula.

– Demagun ‘50 Shades of Grey’ liburua euskaraz argitaratu nahi dutela. Zuengana joko lukete edo beste pauso batzuk jarraitzen dira?

– Ez, normalean ez. Guk elkarte profesional batek bezala funtzionatzen dugu eta hori da aurrera daramagun lana. Honetaz gain, aipatu dudana bezala, itzulpengintza ere sustatzen dugu. Gaur egun, normalean, honelako liburuen itzulpenak merkatutik pasatzen dira. Hau da, itzultzaile asko daude munduan eta bezeroak zuzenean jotzen du profesional hauengana. Gertatu daiteke ordea nora jo ez jakitea, eta kasu horretan zuzenean etorri daitezke laguntza eske zuzenean. Guk badugu itzultzaile zerrenda luze bat webgunean eta bezeroak inolako arazorik gabe azter-

tu dezake. Gida horretan itzultzailearen datuak agertzen dira eta baita berak egindako lanen zerrenda ere.

– Askotan, liburu originalean agertzen den izenburua eta itzulpenean irakurri daitekeena ezberdinak izaten dira. Zein irizpide jarraitzen dira kasu hauetan?

– Buff! (barreak). Kontu hauetan tokian tokiko ohiturek eta arrazoi komertzialek garrantzi handia izaten dute. Frantzia eta Espainian ohitura handia dago izenburuak aldatzeko eta gu hor erdian gaudenez ba... Erabaki hori ez da itzultzailearena izaten normalean. Honelako ausardiarik ez dute normalean hartzen. Egia da, hala ere, askotan, izenburu aldaketa hori zentzuzkoa izan daitekeela eta, batzuetan, beharrezkoa ere bai. Izenburu asko ezin daitezke literalki itzuli ez bailirateke ulertuko. Adibide asko daude. Aldaketa honi egokitze kulturala deitzen zaio.

– Itzultzaile batek testu bat jasotzen duenean zein zailtasun mota aurkitzen ditu?

– Testu moten arabera zailtasunak era batekoak edo beste-koak izaten dira normalean eta zaila da denak laburbiltzea. Hala ere, esango nuke lehen zailtasuna testua bere izaten dela. Testuaren kalitatea, alegia. Eta bigarrena, zalantzarik gabe, esijentzia maila da. Hau da, bezeroak eskatzen duena. Askotan esaten digute: «Itzuli ezazu hau, mesedez, baina euskara garbian egon dadila!». Jatorrizko testua hartu eta oso testu katramilatsua dela konturatzen zara. Eta orduan zera galde-tzen diozu zeure buruari: «Nola demontre itzuliko dut testu katramilatsu hau euskara erraz batean?». Lan gogorra da, zalantzarik gabe. Eta gauza bera gertatzen da interpreteekin. Hitz egiten duenak ez badu garbi hitz egiten, lana asko zailtzen zaio profesionalari.